

# “MUNDUKO HAURRAK” PROGRAMA



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

*Setem*



TEATRO  
**PARAISO**  
ANTZERKIA



## **AURKEZPENA**

---

“MUNDUKO HAURRAK” programa Paraiso Antzerkia eta Setem-en arteko elkarlanari esker sortu izan da. Paraiso Antzerkiak hogeitabost urte baino gehiago daramatza gazte eta haurrentzako antzerkia sortzen. Konpainia honen baitan beti egon da hezkuntzan laguntzeko nahia eta kezka horrek hainbat jarduera pedagogikotan parte hartzera bultzatu du. Bestetik Setem informazioaren eta hezkuntzaren bitartez garapenerako lankidetzak sustatzen duen GGKE da. Gizartearen sentsibilizazioa lortzeko eta Hegoaldeko herrialdeetan garapena bultzatzeko lankidetzak proiektuak burutzen ditu erakunde honek.

Ekonomikoki geroz eta globalizatuagoa dagoen mundu honetan, kultura eta gizarte aldetik geroz eta nahasketa handiagoa dagoen honetan, ezinbestekoa da munduko beste toki batzuetan nola bizi diren jakitea. Artea oso baliozkoa izan daiteke errealitate ezberdinak eta urruneko tokitan bizi diren gizakiak ezagutzeko. Horrela, “MUNDUKO HAURRAK” programak honakoa helburuak ditu:

- Gure hurrei munduko beste tokietako errealitateak ezagutzera eman, hurrei arreta berezia eskainiz.
- Kontsumitzen ditugun produktu askoren ekoizpen erari eta jatorriari buruz kontzientziatu, eta arrazoizkoa eta bidezkoa den kontsumoa bultzatu.

Helburu zehatz hauetaz gain antzerkia eta orokorrean arteari lotutako edozein programak bestelako helburu orokorrak ditu. Batzuk aipatuko ditugu:

- Antzerkia ikastetxeetako hurrei hurbiltzea.
- Ikasleak antzerkiaren ikusle izateko prestatzea.
- Antzezlan bat begiratzeko, behatzeko eta interpretatzen ikasteko gozamenerako eta analisirako jarrerak sortzea.
- Izandako esperientziaren inguruan iritzi kritikoa eta adierazpena, eta antzezlanaren elementuen analisia eragitea.
- Sormena sustatzea.

# 1. ISTORIOAK SORTUZ

## ➤ KAFE ZAKUA

Pakete bat ikasgelara iritsiko da. Ikasgelari zuzendutako pakete misteriotsuaren helburua haurren jakin-mina piztea da. Ongi azertzean kafe usaia duen zaku txiki bat dela ikusten dugu.

Zer esan nahi du kafe zaku honek? Nork bidali ote du?

Lehen une honetaz baliatu gaitezke hurrei ea kafeaz zer dakiten galdetzeko. Nondik dator kafea?

Zakua irekitzen dugu eta kafe bihiekin batera misterioa argitzen lagunduko digun mezua topatu dugu. Mezua Erizen eskutitz bat da. Eriz Paraiso Antzerkiko antzezle bat da, eta mundu guztia zeharkatu du toki eta jende desberdinak bisitatuz. Bere bidaietan oso bizimodu desberdina egiten duten toki guztietako haurrak ezagutu ditu. Erizi istorioak entzutea eta kontatzea gustatzen zaio, eta antzerki ikuskizun batera gonbidatzen gaitu.

## ➤ ISTORIO BAT OPARI BAT DA. Istorioak elkartrukatuz

Ahozko tradizio handia dagoen munduko toki batzuetan istorioak kontatzea estimatua dago eta entzuten duenarentzat oparia da. Aldi berean, entzuleak beste istorio bat kontatuz erantzun behar du.

Erizek “KAFE HAURRA” istorioa ezagutzera gonbidatzen gaitu antzerkira, baina lehenago, ikasgelan, munduko haur bati buruzko istorio bat asmatu behar dugu. Ikasgelan sortutako istorioen truke, Erizek antzerkirako sarrerek bidaliko dizkigu.

## ➤ MUNDUKO HAURREN ISTORIOAK

*“Munduko toki bakoitza desberdina da eta leku bakoitzean haurrak desberdin bizi dira. Batzuek basamortuko hondarrean jolasten dute, beste batzuek erreka izoztuetan patinatzen dute eta ura jasotzeko edo eskolara joateko distantzia handiak ibili behar direnak ikusi ditut. Haur bakoitzak bere istorioa du”*

Antzerkira joan aurretik beste toki bateko haur baten istorioa asmatu behar da. Jarduera hori modu askotara egin daiteke, dinamikaren eta gela bakoitzaren beharren arabera. Haur bakoitzak istorio bat asma dezake baina lana taldeka edo gela osoaren

artean ere egin daiteke. Istorioa idatziz, marrazkiz, collage bidez, soinudun grabaketan, bideoan... kontatu daiteke.

Jarduera hizkuntzako orduan landu eta gazteleraz, ingeleraz, euskaraz edo beste edozein hizkuntzatan egin daiteke.

Gelako haurren bat munduko beste tokiren batekoa bada, beste lekuetan bizitza nolakoa den kontatzeko aprobeitza daiteke.

Aukera guztiak zabalik daude; haurrek eta irakasleek sorkuntzako lan honetan ondo pasatzea da garrantzitsuena. Behin istorioak amaitu ondoren, Erizi bidali behar zaizkio helbide honetara:

Teatro Paraíso Antzerkia

Abetxuko Pueblo 8B

01013 - Vitoria-Gasteiz

#### ➤ **SARRERAK IRITSI DIRA**

Ikasgelan asmatutako istorioak bidali, eta bi edo hiru egunera Erizen bigarren mezua iritsiko da. Bertan, eskerrak ematen dizkigu gure kontakizunengatik eta "KAFE HAURRA" antzezpenera joateko sarrerak bidaltzen dizkigu. Dena prest dago antzokira joateko.

## 2. “KAFE HAURRA”

Ikuskizun hau Boloniako La Baracca / Testoni Ragazzi eta Paraiso Antzerki konpainien arteko lankidetzaren ondorio da. La Barracak Nikaraguako kultura proiektu batean lankidetzaren egitekin sortu zuen antzezlanak. Roberto Frabetti eta Bruno Cappagli dira jatorrizko testuaren egileak eta Miel Zaldierok itzuli du euskarara. Eszenako zuzendaria Tomás Fernández Alonso da eta Eriz Alberdi aktorea antzezpenez arduratzen da. Antzerki ikuskizuna 7-11 urte arteko haurrei dago zuzenduta eta ordubeteko iraupena du.

“KAFE HAURRA” antzezlanak kafea bilduz lan egiten zuen Nikaraguako Pedro haurraren istorioa kontatzen du, egun batean Arabiara bidaiatu nahi izan zuenarena. Kafearen laborantza Arabian hasi zen eta bertatik Ameriketara eraman zuten. Kontalaria Eriz da, horrek Pedritoren ahotik entzun zuen bere istorioa eta ikusleari horren berri emango dio kontakizunean agertzen diren pertsonaiak antzeztuz. Kontakizunaren bidez eta pantailan agertzen diren irudien laguntzaz, kafea nola biltzen den, Pedroren familiaren bizi baldintzak zeintzuk diren, bere eskola, bere irakasle, bizi den harana... ezagutzen ditugu. Istorioan zehar erreala eta fantastikoa uztartuz doaz. Kafea biltzeko azken egunean, Pedritok bi pertsonai arraro ezagutuko ditu, kafe bihi bi, Chiquitito eta Pequeñito, kafearen jatorririk, Arabiara, bidaiak egitera animatuko dutenak.

Antzezlan honek interes handiko gaien inguruan hausnartzeko aukera ematen digu. Hirugarren munduko bizi baldintzez hitz egiten digu; soldata oso txarrekin lan egiten duten haurrak badaudela, lehen munduan prezio onargarrietan erosten diren produktuengatik zeinen gutxi ordaintzen zaien... jakinarazten digu. Oinarri horrekin garatzen da Pedritoren istorioa, fantasiaz betetako kontakizun arina eta ederra.

### 3. ISTORIOAK JARRAITZEN DU

“KAFE HAURRA” antzezpenera joan ondoren, ikasgeletan landu daitezkeen zenbait gai daude. Batetik, ikuskizun berak planteatzen dituen gaiak daude (kafearen bilketa, Nikaraguako bizi baldintzak, merkataritza...). Bestetik, munduko beste tokietako haurren istorioak asmatzean hasitako lanarekin jarraitzea interesgarria da.

Ikuskizun bat ikasgelan jarraipena duen lana hasteko abiapuntu ona izan daiteke. Horregatik, behin eskolara itzuli ondoren egin daitezkeen zenbait jarduera proposatzen ditugu. Noski, jarduera horiek proposamenak besterik ez dira, eta irakasle bakoitzak bere beharrei eta bere gelaren aukerei hoberen egokitzen zaien lan mota bilatu ahal izango du.

#### ➤ HONDARRAREN KOLOREA

Antzokira joan eta handik bi edo hiru egunera, Erizen beste mezu bat iritsiko da ikasgelara. Oraingo honetan pakete bat da, Pedrok, “KAFE HAURRA” antzezlaneko protagonistak, zeraman kartoizko kaxa gogorarazten digunaren antzekoa. Kaxaren barruan hondarra, liburu bat eta eskutitz bat topatuko ditugu. Mezuan, Erizek liburuaren basamortuko errefuxiatu esparru batean egon zen bere lagun batek idatzia dela azalduko digu. Liburuaren izenburua “HONDARRAREN KOLOREA” da eta Elena O’Callaghan i Duchek eta María Jesús Santos Herederok idatzi dute Art and Life Fundazioarekin lankidetzan. Fundazio horrek artea munduko ahalik eta haur gehienei hurbiltzeko egiten du lan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetako.

“HONDARRAREN KOLOREA” haurrentzako eta helduentzako moduko liburu bat da. Ipuineko haur protagonista, Abdul, Mendebaldeko Saharako errefuxiatu esparru batean bizi da. Horrela irudikatzen ditu bere ideiak eta zirrarak. Baina haizeak kolpe batez ezabatzen ditu hondarrean egindako trazu iragankorrak. Bere inguruan okrea edo okre desberdinen multzoa da kolore nagusia. Bere marrazkiak ere okreak dira, hondarraren kolorekoak.

Soilik egun batean ikusi eta euren modura deskribatzen duten heldu urrientzat ez dago itsasorik.

Itsasoa irteera da, askatasuna irudikatzen duen sinboloa.

Ipuin honetako irakurleei zirrararen eragiten dien hizkuntza soil eta poetikoaren bidez, haurrak bere zorigaitz pertsonala eta herriarena kontatzen ditu. Baina, zer nolako magia gertatzen da errefuxiatu esparru horretako haurrek koloretako arkatx soil batzuen bidez paperean adieraz dezaketenean?

Gelan munduko beste toki batzuetako haurren istorioak asmatu, eta “Kafe Haurraren” antzezpena ikusi ondoren, liburu honek haurtzaroa bizitzeko beste modu baten adibide berri bat eskaintzen digu. Beraz, munduko haurren istorioak ezagutzen jarraitzen dugu.

## ➤ **MUNDUKO PRODUKTUAK**

”... Pedrok kafea biltzen du eta erosten dion bati saltzen dio; erosle horrek beste bati saltzen dio; horrek beste erosle bati berriro saltzen dio eta horrek berriro salduko duen beste bati saltzen dio... eta erosle berri bakoitzak apur bat garestiago ordaintzen du kafea...”

Itxuraz denok gara merkatu globalaren zati, baina mozkinak ez dira pertsona guztiengana berdin iristen; irabazleak eta galtzaileak daude.

Hegoaldeko herrialde askotan pertsonen sarrerak lehengaien esportazioen menpe daude (kotoia, kafea, kakaoa, tea...), baina ordaintzen zaizkien prezioak toki horietatik oso urruti erabakitzen dira.

Lehiakortasuna eta mozkin ekonomiko maximoa arau bihurtzen dira, bere kostu soziala eta ekologikoa kontuan hartu gabe.

“KAFE HAURRA” lanean kafe biltzaileek lan egiten duten baldintza gogorrek eta horren truke irabazten duten huskeria deskribatzen dira. Kafea gure ingurunean egunerokoa den produktua da, oso hurbilekoa baina oso urrutitik ekarria. Badira horrelako produktu gehiago?

Galdera hori planteatuz, ia detektibeen lanari ekin diezaiokegu, inguratzen gaituzten produktuen jatorria bilatuz. Nahikoa da etiketen arrastoari jarraitzea normalean oso urrutitik datozen gauzak erabiltzen eta kontsumitzen ditugula konturatzeko.

Jasotako informazioarekin munduko mapa bat egin dezakegu. Bertan, aztertu ditugun produktuak eta nondik datozen jarri dezakegu.

*Kaixo, Eriz naiz, Paraiso Antzerkiko antzezle bat.*

*Asko gustatzen zait bidaiatzea; ia mundu osoan zehar bidaiatu dut eta leku guztietako neska-mutilak ezagutu ditut. Munduko toki bakoitza ezberdina da eta leku bakoitzean haurrak desberdin bizi dira. Nire bidaietan basamortuko hondarrean jolasten zuten haurrak, erreka izoztuetan patinatzen zutenak eta ura jasotzeko edo eskolara joateko distantzia handiak ibiltzen zirenak ikusi ditut. Haur bakoitzak istorio bat du. Niri istorioak entzun eta kontatzea gustatzen zait.*

*Entzuten duenarentzat, istorio bat oparia da. Horregatik, toki batzuetan istorio bat beste baten truke itzultzea ohitura da. Istorioak trukitzea proposatzen dizuet. Zuek munduko beste toki bateko haur baten istorio asmatua oparitzen didazue. Zuen istorioa bidali, eta nik trukean "Kafe Haurra" antzerkia ikusteko sarrerak bidaliko dizkizuet. Bertan, Pedroren, Nikaraguako mutil baten istorioa kontatuko dizuet.*

*Musu bat,*

 *Eriz*





*Kaixo!*


*Eskerrik asko munduko haurren istorioengatik; asko gustatu zaizkit. Orain nire txanda da eta istorio bat oparituko dizuet.*

*"Kafe Haurra" antzerki ikuskizuna ikustera etortzeko sarrerak bidaltzen dizkizuet. Bertan, egun batean, Pedritok, bere herrialdean, Nikaraguan, kafea biltzen lan egiten zuen haurrak kontatutako istorioa kontatuko dizuet.*

*Zuei nire istorioa niri zuenak gustatu zaizkidan bezainbeste gustatzea espero dut.*

*Laster arte!*

*Musu bat,*



*Eriz*



*Kaixo lagunok!*

*"Kafe Haurra" gustatu al zitzaiuzen? Pedritoren eta bere lagun guztien abenturarekin ondo pasatu izana espero dut.*

*Aurreko egunean zuekin gogoratu nintzen, nire lagun batek "Hondarraren kolorea" izeneko ipuina kontatu zidalako. Bertan, Saharako errefuxiatu esparru batean lanean egon zenean ezagutu zuen Abdulá haurraren istorioa kontatzen da. Bere kontakizuna asko gustatu zitzaidan eta zuei bidaltzea erabaki nuen, horrela munduko beste haur batzuen istorioak ezagutzen jarraitu ahal dezazuen.*

*"Hondarraren kolorea"rekin gozatzea espero dut.*

*Musu bat,*



*Eriz*

